

VII. edizioa webgune eguneratuarekin eta online formatu berriekin hasiko da

1.700 ikaslek hasiko dute Kutxabanken ikastaro berria: 'Bizitzarako Finantzak'

- **Jokoaren oinarrizko mailan erronka eta zailtasun-maila berriak daude, 'are zailagoa' egiten dutenak**
- **Edukiek eta materialek jasangarritasun, inklusio, berdintasun eta berrikuntzako parametroak errespetatzen dituzte**
- **Orain arte, Euskadi osoko hainbat ikastetxetako 592 ikasgeletako 11.500 neska-mutilek parte hartu dute programan**

2021eko urriaren 13an. Aurrezki Kutxen Fundazioaren (Funcas) laguntzarekin garatuta, 'Bizitzarako Finantzak' programaren zazpigarren edizioa bihar hasiko da; DBHko eta oinarrizko lanbide-heziketako **1.700** ikasle daude orain arte izena emanda, Euskal Autonomia Erkidegoko **45 ikastetxe** publiko eta itundutakoak. Duela zazpi urte hasi zenetik, 14 eta 17 urte bitarteko **11.500 ikasle** inguru trebatu dira finantzen munduan, Kutxabankek ikastetxeekin lankidetzan estuan egindako proiektu pedagogikoaren bidez.

Ikasturte berriak hainbat berrikuntza dakartza, eta **web-orrian hobekuntzak eta eguneratzeak** egin dira. Horrez gain, irakasleekin online egingo diren azalpen-saioen konfigurazio berria sartu da, eta ikasgela bakoitzera egokitutako joko-kutxak prestatu dira, aukeratutako joko-mailaren arabera. Edizio honetan, berritasun gisa, oinarrizko mailak 'plus' karta-sorta bat gehitu du, zailtasun maila handiagoa nahi duten ikasgeletan erronka eta zailtasun-maila berriak sartzeko aukera emango duena, joko-maila aurreratua aukeratu beharrik gabe. Eduki guztiek jasangarritasun, inklusio, berdintasun eta berrikuntzako parametroak errespetatzen dituzte.

"Bizitzarako Finantzak" programaren helburua gazteek finantzen munduko oinarrizko kontzeptuak ulertzea da, helduarorako trantsizioan ezinbestekoak izango zaizkien zenbait gaitasun eta ezaupide lor ditzaten. Horregatik, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 3. eta 4. mailako ikasgeletan Ekonomia eta Jarduera Ekintzailearen Hastapenak irakasgaietarako. Beste ikastetxe batzuek 'Bizitzarako Finantzak' programa zeharka erabiltzen dute irakasgai batean baino gehiagotan.

Saioen % 66 euskaraz

Bizitzarako Finantzak programako taldeak finantza-hezkuntza ikasgeletan sartzearen alde egiten jarraitzen du, hori mekanikoa izan gabe, erronka berrien bidez, programan parte hartzen dutenei ikasten laguntzeko, ikasgela bakoitzaren aurrerapen-erritmoa errespetatuz.

Komunikazio-tresna simulazio-jokoaren erabilera da, beste material digital eta birtual batzuekin osatuz joan dena. Horrela, azken helburua da parte hartzen duten 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek finantza-trebetasunak modu ludiko eta esperimentalean lortzea, eta horretarako eragile guztien inplikazioa garrantzitsua da: ikasleena eurena, irakasleena, dinamizatzaileena eta, azkenik, Kutxabankeko profesionalena.

Kanpainako materialak eta langileak elebidunak dira, eta beraz jarduerak **euskaraz edo gaztelaniaz** egin daitezke.

Azken ikasturtean, ikastetxeen % **66k** saioak **euskaraz** eskatu zituzten. Gaztelaniazko eskolak hautatu zituzten ikasgelek eredu elebidunarekin garatu zituzten benetan, aldi berean behin gaztelania erabiliz zenbait termino argitu edo azalpen zehatz emateko.

‘Bizitzarako finantzak’ programak ikasgelan eta online lantzeko material didaktiko guztia ematen die ikastetxeei. **Dinamizatzaileek eta Kutxabankeko adituek** (gehienak, bulegoetan jardunean dauden zuzendari gazteak) parte hartzen dute programaren itxiera-jardunaldian **zalantzak argitzeko, arazo bakoitzari irtenbiderik** onenak emateko eta ekimenaren helburuak bete diren baloratzeko.

Simulazio-joko bat

‘Bizitzarako finantzak’ programa ikastetxeetan bertan garatzen da, formatu berritzaile baten bidez: zuzendutako simulazio-joko parte-hartzailea, ikasleei eta irakasleei finantza-gaitasunak eta -trebetasunak lantzeko aukera ematen diena. Bikoteka edo talde txikitik, parte-hartzaileek pertsonaia bat aukeratzen dute, lortu eta denboran zehar mantendu behar duen helburu batekin.

Bi premisa horiek ezagututa, eta ordubeteko hiruzpalau saiotan zehar, hileko aurrekontua doitu beharko dute, aldagai guztiak kontuan hartuta (diru-sarrerak, nahitaezko gastu finkoak, beharrezkoak diren gastu aldakorrek eta beharrezkoak ez diren gastuak), irakasleek sartzen dituzten txartel aldakorren arabera; txartel horiek jokoan zehar erabakiak hartzea ekarriko dute, abiapuntua aldatuz bi zailtasun-mailaren inguruan.

Jokoa amaitzeko, ebaluazioko azken azalpen-saio bat egiten da, non Bankuko adituek bizitzarako finantzei buruzko kontzeptuak, argi geratu ez direnak, doitzen edo egokitzen dituzten. Kutxabankek informazio-euskarri iraunkorreko telefono-linea bat eta laguntza-tresnen eta simulagailuen bidezko kontsultarako webgune bat eskaintzen die parte hartzen duten ikastetxeei, erakundearen orrialdeetako ‘Familiak’ atalean eta helbide honetan: <http://www.finanzasparalavida.com/>.